

ADJUDIKAZIO-PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA

BERMEOKO 25.2 EREMUREN II ORUBEAN BERMEOKO UDALAK BIRPARTZELATZE JARDUERA BATEN ONDOREN JASO BEHARREKO LOKAL KOMERTZIALAREN ETA 60 GARAJEEN UDAL ESKUBIDEAREN SALMENTA

1. artikulua.- Pleguaren helburua.

Bermeoko Udaltzakoak, Martin Deuna auzoan kokaturiko 25.2 eremua edota Exekuzio unitateari zegokion birpartzelatze proiektua onartu zuenean (206ko urtarrilaren 26an behin betirako onartutakoan eta 2005eko maiatzaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena), honen II zenbakiko orubean, 1365 metro karratutako lokal bat eta 60 garaje jasotzeko eskubidea hartu zuen, gaur egun, Plan Orokor berriren arabera, erabilera komertziala izan dezakeena.

Hori horrela izanik, eta II zenbakiko orube horren titularrak, dagokion etxebizitzetarako eraikina eraikitzerakoan, lokal komertzial bat eta 60 garaje horiek eraiki behar ditu, udalarengatik eraikitze lanen koste ordaina jaso, eta Udalari dagokion 1.365 metro karratutako lokal komertziala eta 60 garaje dohainik eman behar dizkio horrela baitago, esan bezala, araututa.

Krisi testuinguru honetan, dena den, Bermeoko Udalak ez du eraikitzeko koste hori ordaintzeko ahalmenik eta, bestalde, bai eskubide horiek enkantetan saltzeko beharra, aitzitik, lokal horren eta 60 garajeen behar publikorik ikusten ez baitu eta, egon, badaudelako udal eta herriren interes orokorretarako diru hornikuntza duten beste premia eta lehentasunak.

Legearen ikuspegitik, bestalde, 2/2006 Euskal Erkidegoko Hirigintza eta Lurzoru legeak, hirigintzatik datozen eskubide guztiak, Udal Ondare Publikoari lotzen dizkio (111 atalaren arabera), eta horietatik ateratako irabazi edo diru etekinak, Udal Ondare horren helburuetara bideratu behar direla arautzen du. Horrekin batera, Udal Ogasun eta Ondareen Araudiek, enkante libre hartzen dute saltzen edo besterenganatze prozedura egokitzen, batez ere, saldutako higiezin edota hau sor dezakeen eskubidea, helburu publikoetara helbideratuta ez dagoenean. Hau da, hain zuzen, Bermeoko Udalaren erabakia eta aukera, hots, enkante irekia.

2. Artikulua.- Kontratuen izaera.

Udalaren eta adjudikaziodunaren arteko Kontratuen Adjudikazioa egin ondoren, salmentako kontratuak pribatu izaera izango du.

3. artikulua.- Arauak.

1- Baldintza-agiri honen arabera egindako kontratuaren prestakuntza, eskumena eta adjudikazioa honakoen arabera arautuko da:

- a.- Plegu honetan jasotako klausulak.
- b.- Urriaren 30eko Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 eta honi dagozkionak.
- c.- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

2- Kontratuaren eragina eta bukaera Pleguan bertan eta Kode Zibilaren 1445 artikuluan zein ondorengoetan aurreikusitakoek arautuko dute. Modu osagarrian, administrazio-zuzenbidearen gainontzeko arauak hartuko dira, eta, bestela, zuzenbide pribatuaren arauak.

4. artikulua.- Enkantean parte hartu ahal izateko baldintzak.

Enkantean parte hartu ahal izateko baldintzak hurrengoak dira:

- Kontratatzeko gaitasun osoa duten pertsonak izan litezke lehiatzaile, baldin eta ez badaude Arlo Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen 49. artikuluan adierazitako debeku balizkoetan sartuta.
- Norbere izenean edo baimendutako norbaitek ordezkatuta egin ahal izango dute eskaintza, hartarako emandako ahalordea erabiliz.
- Adjudikazioa, kontratua eta eskritura publikoa, aurkeztutako

proposamenean eskaintzaile gisa adierazitako pertsonekin emango dira.

- Herriko zergak eta udal zigorrak ordainduta izatea.

5. artikulua.- Saltzen den eskubidea eta gutxienerako prezioa.

A) Saltzen den eskubidea, 2006ko urtarrilaren 26ko Bermeoko Udal Osoko Bilkurak, aurkeztu ziren alegazioak eta helegiteak ebatzita, onartutako Birpartzelatzeko Egitasmoan, II orubean, Udalaren jabetzapean erabaki eta Jabego Erregistroan inskribatu zen, 1.365 metro karratutako lokal komertziala eta 60 garaje jasotzearen eskubidea da. Eskubide hau, II orube horren jabeak edota sustatzaileak egin beharko du, eskubide honen esleipendunak eraikitze kostea ordaindu behar diolarik horren jabetza jaso ahal izateko.

B) Aurrekoa kontutan hartuta, eta izan daitekeen lokal komertzialaren eta 60 garaje horien eskubidearen prezioa, eraikuntza kostea behin kenduta, , **MILOI BAT EUROTAN (1.000.000€)** finkatzen da, diru kopuru hau gutxienezkoa delarik eta enkantean parte hartzen dutenek, kopuru hau altxatu edo hobetu beharko luketelarik. Kopuru hori gaindituta, Preziorik altuena eskaintzen duena izango da adjudikataria edo esleipenduna.

6. artikulua.- Fidantza.

Parte hartzeko, lizitatzailleek 40.000 euroko (berrogei mila euro) fidantza ezarri beharko dute.

7. artikulua.- Lizitaziorako argibideak, proposamenak, dokumentazioa eta aurkezteko epeak.

Prozedura arautzen duten Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Pleguak ikusgai egongo dira, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, Bermeoko Udaleko Erregistro Orokorrean (BERH@Z - Bermeoko herritarrentzat arreta zerbitzua, Ertzilla kalea 6-8, 48370 BERMEO) astelehenetik ostiralera 08:30etatik 14:30etara, astearte eta ostegunetan 16:30etatik 19:00etara ere eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

Era berean, prozedura honi buruzko dokumentazio guztia biltzen duen administrazio-espeditentea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera egongo da erakusgai,

Bermeoko Udalaren Obra, Urigintza eta Ingurumen Sailean (Intxausti kalea 2, 2. pisua, 48370 BERMEO), goizeko 09:00etatik 14:00ak artean.

Proposamenak Bermeoko Udaleko Erregistro Orokorrean (BERH@Z bulegoan) aurkeztuko dira artikuluko honetako lehen paragrafoan zehaztutako ordutegian, 30 egun naturaleko epean, aipatutako iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epea igandean, edo jai-egunetan bukatzen bada, proposamenak aurkezteko epea hurrengo lan-egunetan bukatuko da.

Proposamenak azaroaren 30eko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 38.4 artikuluan adierazitakoarekin bat etorrita ere aurkeztu ahal izango dira; horretarako, aurreko idatzian adierazitako 30 eguneko epea amaitu aurretik jakinarazi beharko da, proposamena fax-ez helaraziz. Edonola ere, adierazitako egunetik hamar egun naturaleko epean proposamena jaso ez bada, ez da proposamenik onartuko.

Baldintza-plegu honetako laugarren artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituen edonork aurkeztu ahal izango du eskaera, laugarren artikulua azken paragrafoan adierazitakoa aintzakotzat hartuta. Pertsona edo erakunde bakoitzak eskari bakarra aurkeztu ahal izango du.

8. artikulua.- Prozedura:

Lehiatzaileek kartazal bat aurkeztu beharko dute, kanpo aldean honako testu hau idatzita: “*BERMEOKO 25.2 EREMUREN II ORUBEAN BERMEOKO UDALAK BIRPARTZELATZE JARDUERA BATEN ONDOREN JASO BEHARREKO LOKAL KOMERTZIALAREN ETA 60 GARAJEEN UDAL ESKUBIDEAREN SALMENTA*”

Kartazalaren barruan honako agiriak sartu beharko dira:

- a) Udalak emandako eskari inprimakia, behar bezala beteta eta izenpetuta.
- b) Plegu honetako laugarren atalean eskatzen diren baldintzak kreditatzeko agiriak.
- c) Interesatuak bere izenean badihardu, nortasun-agiria. Beste pertsona fisiko edo juridikoren baten izenean badihardu, ordezkaritza hori egiaztatuko duen notario-ahalordea.
- d) Fidantzaren ordainketa-agiriaren fotokopia.

- e) Eskaintzen duten prezio edo salneurria (diru kopurua zenbakiz eta letraz idatzia), behar bezala sinatuta edo izenpetuta.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du baldintza-pleguan eta eskaintzaren zati diren gainontzeko dokumentuetan aurreikusitako guztia baldintzarik gabe onartu dela, eta aurkeztutako datu guztien zehaztasunaren erantzule aitortzen dela.

9. artikulua.- Dokumentuak kalifikatzea eta proposamenak onartzea.

Kontratazio Mahaia honela osatuta eratuko da: Alkatea, udal mailan ordezkaturik dauden alderdi bakoitzeko kide bat, Kontuhartzailea eta Idazkaria. Kontratazio Mahaiaren osaeraren berri Udaletxeko iragarki-taulan emango da argitara, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Aldez aurretik, Kontratazio Mahaiak epearen barruan eta behar bezala aurkeztutako dokumentuak sailkatuko ditu, eta, beharrezkoa bada, hiru lan-eguneko epea eskainiko du antzemandako akatsak zuzentzeko.

Ondoren, gehienez 15 eguneko epean, eskatutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko da eta onartutako eskarien zerrenda udaletxeko iragarki-taulan jarriko da 10 egunetan. Epe horretan aurkeztu ahal izango dira egoki irizitako alegazioak. Epea igaro ondoren, Kontratazio Mahaiak zozketan parte hartzeko onartutako eskarien zerrenda behin betiko onartuko du.

10. artikulua.- Adjudikazioa.

Kontratazio Mahaiak Kontratazio Organoari proposatuko dio kontratuak egokitzea.

Kontratazio Mahaiaren proposamenak ez du sortuko inolako eskubiderik eskumena duen udal organoak dagokion adjudikazio erabakia hartu arte.

11. artikulua.- Prezioaren ordainketa egiteko eta kontratua gauzatzeko epeak.

Adjudikazioaren jakinarazpena eginda, adjudikazio-hartzaileak plegu honetan zehaztutako prezioa ordaindu beharko du hamabost eguneko epean, Bermeoko Udalak zehaztuko duen kontuan.

Adjudikazioaren jakinarazpena egin eta hilabeteko epean salerosketa-
eskritura publikoa formalizatuko da. Une horretan aurkeztu beharko da
plegu honetan ezarritako prezioa ordaindu izanaren egiaztagiria.
Formalizazioari eta salerosteari dagozkion zerga eta gastu guztiak
adjudikatariaren kontura izango dira, Jabego Erregistroan inskribatzerik
balego, hauek barne.

Edozein arrazoiengatik adjudikazio-hartzaileak prezioa ordainduko ez
balu, hasieran ordaindutako fidantza konfiskatuko litzaioke.

12. artikulua.- Pleguaren interpretazioa.

Bermeoko Udalak, dagozkion organoen bitartez, Plegu honetatik sortzen
diren zalantza eta galderak interpretatu eta erabakiko ditu.

BERMEO, 2011ko urriaren 27a

ALKATEA